


KANALAK


Kanalak gu gure bezeroaregana nola iritsiko garen zehaztuko dugu. Kanal bakoitza definitzea oso garrantzitsua da, gure bezeroengana nola iritsiko garen jakiteko, eta gure bezeroarekiko harremana azaltzeko. Salmenta kanalak, banaketa kanalak eta komunikazio eta publizitate kanalak zehaztuko ditugu ondorengo paragrafoetan.

Gure salmenta kanalak hiru motatakoak izango dira, alde batetik aurrez aurrekoa, telefonoaren bidez eta beste aldetik, gure web-orrialdearen bitartez. Hiru kanal mota hauek aukeratu ditugu errazenean iruditzen zaizkigulako bezeroekin harremanetan jartzeko. Hiruretatik aurrez aurrekoari emango diogu garrantzia handiena, harremana gertuagokoa izango delako, gure bezeroa gehiago etortzeko. Horrez gain, deien bidez eta web-orrialdearen bidez ere eskaria egiteko aukera egongo da.



Banaketa kanalen barruan aukera bat soilik dugu, aukera hau banaketa kanal propioa da. Kanak hau aurrez-aurrekoa izango da hau da, dendara etorrita soilik jaso dezakezu gure janaria. Beste banaketa kanal modu bat transportea izango litzateke, baina gure enpresan hau ez jartzea erabaki dugu, oztopo handia izango litzatekelako, alde batetik beste langile batzuk kontratatatu beharko genituzkelako eta bestetik, ez dugulako kutsadura areagotzea nahi, gure enpresa naturarekiko errespetuarekin jasagarritasunarekin zuzeneko lotura duelako.

Komunikazio kanal gisa, gure enpresaren inguruan informazioa lortzeko web-orri bat sortuko dugu. Webgune honetan, gu nor garen azalduko dugu eta gure enpresaren oinarria eta baloreak zein diren azalduko ditugu, naturarekiko errespetua... Bestalde, gure menua eta gure enpresaren funtzionamendua azalduko ditugu, hots, guregana nola iritsi, dendaren helbidea, telefonoa... Beste komunikazio kanal batzuk egongo dira guri buruzko informazio iturria lortzeko: instagram bidez, deien bidez eta dendara etorrita izango litzateke.



Publizitatea ere Xama-Namako beharrezko jarduera bat izango litzateke, honekin bezeroaren arreta lortuko genuke eta gure enpresaren hazkundera baieztatuko dugu. Horrela gure produktu eta menua dastatzera etorriko lirateke eta bezero gehiago lortuko genituzke. Publizitateari dagokionez, gure herriko elkargune garrantzitsueneetan posterrak eta publizitate orriak itsatsiko genituzke, baina gure instagram kontua eta web-orrialdean guri eta gure enpresaren inguruko informazioa lortutzeko aukera eskeiniko genuke.

